

æek  
22.korrika

2. ALBISTEA

2021/12/16



B1

MAILA

**Kalean da  
22. KORRIKA-kanta!**

**Nerea Urbizu, Ane Garcia eta Anariren eskutik dator!**

**HITZAREN**

**Amurriotik Donostiara**

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

## kalean da 22. KORRIKA-kanta: HITZEKIN

### FITXA TEKNIKOA:

#### Zuzendari artistikoa eta

**musika:** Nerea Urbizu

**Kantariak:** Nerea Urbizu, Ane Garcia, Anari

**Letra:** Sustrai Colina

#### Musikariak:

Ander Zulaika: bateria

Itsaso Etxebeste: baxua

Eñaut Gaztañaga: gitarrak

Nerea Urbizu: pianoa

### ► Adi irakurri, eta hiru datu faltsu topatuko dituzu:

#### Nerea Urbizu Ruiz (Lekunberri, 1950)

Berrogehita bi urte ditu, musikaria da, eta, Urko Oskozekin batera<sup>1</sup>, *Ene Kantak* proiektuaren sortzaileetako bat<sup>2</sup>. Bertan, umeentzako musika, dantza (koreografiak), eta ikuskizunak egiten dituzte. Hasiera batean, disko bat ..... (1) zuten helburu, baina, ..... (2) beren 9. lana argitaratu<sup>3</sup> zuten. Nerea ..... (3) aritu zen 2007an sortutako *Katamalo* folk- eta pop-taldean ere, Gorka Urbizu (*Berri Txarrak*) nebarekin batera, eta bi disko kaleratu<sup>4</sup> zituzten. 2020. urtean, Nereak *Naizen* elkartearen abestia sortu zuen, hango gazte eta gurasoekin batera. .... (4), bera da 22. KORRIKAREN *Hitzekin* kantaren sortzaile eta zuzendari artistikoa; gainera<sup>5</sup>, ahotsetako<sup>6</sup> bat ere jarri ..... (5).

#### Anari (Ana Rita Alberdi Santesteban; Azkoitia, 1970)

Euskal egile-abelsari bat da. 1997an hasi zen musika-munduan *Negu Gorriak* taldearekin, eta orduz geroztik<sup>7</sup> bakarkako bost disko argitaratu ditu, bai eta beste bat ere Petti musikari nafarrarekin elkarlanean. Doinu<sup>8</sup> goibel<sup>9</sup> eta bakartiak<sup>10</sup> erabili ohi ditu, eta oso kritika onak jaso ditu. Batzuek *Euskal PJ Harvey* esaten ..... (6). 2018an, Adarra Saria<sup>11</sup> eman ..... (7) (Donostiako Udalaren saria,



Irudian (AEK): Anari, Nerea eta Ane (musikari eta abeslariak)

2014an sortua, euskal musikan egindako ibilbide artistikoak omentzeko asmoz); sari hori irabazi ..... (8) lehen emakumea izan da Anari. Ahotza jarri ..... (9) 22. KORRIKAREN kantari.

#### Ane Garcia Lopez (Hondarribia, 1994)

Itzultzaile eta abeslari lapurtarra da. *Lurra* musika-taldeko abeslaria izan da, 2011-2017 ..... (10). Iñigo Muguruzaren (*Kortatu, Negu Gorriak*) ikaslea izan zen; ..... (11) ahotsak liluratu<sup>12</sup> zuen irakaslea, eta orduan<sup>13</sup> bion artean *Lurra* taldea ..... (12) erabaki zuten 2011. urtean Irunen. Pop-, reggae- eta ska-doinuak egin ..... (13); ibilbidean bi disko atera zituzten. 2017ko abuztuan eman zuten azken kontzertua, Zarautzen. .... (14) ahotza jarri dio 22. KORRIKAREN kantari.

#### Sustrai Colina Akordarementeria (Urruña, 1982)

Bertsolaria, bertso-irakaslea eta kazetaria da. Hitzak jarri ..... (15) 22. KORRIKAREN kantari.

#### Hiztegitxoak:

1. ... (r)ekin batera: junto a; *ensemble, avec*
2. sortzaileetako bat: una/o de las/os creadores; *un(e) des compositeurs*
3. argitaratu: publicar; *publier*
4. kaleratu: publicar; *publier*
5. gainera: encima; *de plus*
6. ahots: voz; *voix*
7. orduz geroztik: desde entonces; *depuis*
8. doinu: melodía; *mélodie*
9. goibel: melancólico/a; *mélancolique*
10. bakarti: solitario/a; *solitaire*
11. saria: premio; *récompense*
12. liluratu: fascinar; *fasciner*
13. orduan: entonces; *alors*

### ► Azpimarra itzazu forma egokiak.



1. sortzea / sortzen / sortzeko
2. 2020ean / 2020n / 2020an
3. 2011k arte / 2011ra arte / 2011era arte
4. Azkenaldian / Azkenik / Azkenekoz
5. du / dizkio / zaio
6. dio / diote / zaio
7. zioten / zizkioten / zuten

8. den / du / duen
9. dio / zaio / du
10. inguruan / artean / urtean
11. haren / hauen / horien
12. sortzea / sortu / sortzeko
13. zuten / zizkioten / zituzten
14. Anek / Ane / Aneren
15. du / dizkio / dio

**HITZEKIN (kanta)**

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...

Oinetakoak lotu  
(e)ta utzi oinei ..... *libre* .....<sup>1</sup>,  
belarretan ortozik<sup>2</sup>

.....<sup>3</sup> bide.

Mapetatik harago<sup>4</sup>,  
mundu .....<sup>5</sup> dago.

Sentitutakoa...

Sentitu (e)ta hitz ekin.

(E)ta berriro egin

Korrika zurekin,

.....<sup>6</sup> erauzteko<sup>7</sup> elkarren ederrez.

(E)ta berriro egin

mundua zurekin...

.....<sup>8</sup> kantari

ibiltzen ikasi;

ez egon .....<sup>9</sup> .....<sup>10</sup>

(e)ta korrika hasi.

Berdin da non hasten den, orain beti da hemen.

Pentsatutakoa...

Pentsatu (e)ta hitz ekin.

(E)ta berriro egin

Korrika zurekin

.....<sup>6</sup> erauzteko<sup>7</sup> elkarren ederrez.

(E)ta berriro egin

mundua zurekin

beti baitago norbait hitz .....<sup>11</sup> prest.

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin....

Neguko eguzkitan

erantzi<sup>12</sup> azala;

beti .....<sup>13</sup> dagonak

.....<sup>14</sup> sor dezala.

Bizitza jendea da (e)ta jendea gara.

Sentitu, pentsatu...

Sentitu, pentsatu, hitz ekin.

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...

Zurekin... Hitz ekin, zurekin...

*æk*  
22.korrika

**HITZEKIN**

**Amurriotik Donostiara**  
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

**HIZTEGITXOA:**

**Lagunduko diguzu kanta eta hiztegitxoa osatzen?**

1. .... *Libre* ..... : loturarik gabe
2. Ortozik: oinutsik
3. .... : bihurtzen
4. Harago: kanpo, urruti
5. .... : anitz
6. .... : eztenak, "pintxoak"
7. Erauzteko: ateratzeko
8. .... : euriaren azpian
9. .... : euria egiteari utzi
10. .... : itxaroten
11. .... : egiten hasteko
12. Erantzi: biluztu
13. .... : zalantzarik gabe
14. .... : zalantza

**Aukerak:**

Asko  
Bilakatzen  
Arantzak

Duda  
*Libre*  
European

Ziur  
Atertu  
Ekiteko  
Zain



**Nerea Urbizu Ruiz**



**Anari  
(Ana Rita Alberdi)**



**Ane Gartzia Lopez**



**Sustrai Colina  
Akordarrementeria**

**PROZEDURA:**

- ▶ “Korrika-kanta” entzunda, burura zein kanta datorkien galdetuko diegu; kanta dezatela gogoratzen duten zatiren bat...
- ▶ Aurtengo kanta jada aurkeztu dela esan, eta bideoklipa<sup>1</sup> ikusiko dugu eskolan.
- ▶ Zer iruditu zaien komentatu, eta utziko diegu kantariez eta bideoklipetan agertutako pertsonez zer dakiten esaten (aktoreak agertzen dira: Ainara Unanua, Ramon Agirre eta Itziar Ituño). Bideoklipak KORRIKA egiteko motibo eta modu ezberdinak daudela irudikatzen du. Jendartearen gaur egungo errealitate desberdinak “KORRIKA egiten” azaltzen dira, eta bertan, **amaiera moduan, jendea batuta euskararen aldeko KORRIKAn, hitz ekiteko** prest.
- ▶ Kantarien biografiak irakurri, eta bi kontu egin beharko dituzte (2. or.): batetik, hiru datu faltsuak topatu beharko dituzte; bestetik, ariketa egin.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

**ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):****HIRU DATU FALTSUAK:**

1. Nerea Urbizu Ruiz ez zen 1950. urtean jaio, **1980an** baizik.
2. Ane Garcia Lopez ez da lapurtarra, **gipuzkoarra** baizik, Hondarribikoa.
3. Anari **ez zen hasi *Negu Gorriak taldearekin***, bakarka baizik.

**HUTSUNEAK:**

- |                                                   |                                         |
|---------------------------------------------------|-----------------------------------------|
| 1. <b>sortzea</b> / sortzen / sortzeko            | 9. <b>dio</b> / zaio / du               |
| 2. 2020ean / 2020n / <b>2020an</b>                | 10. inguruan / <b>artean</b> / urtean   |
| 3. 2011k arte / <b>2011ra arte</b> / 2011era arte | 11. <b>haren</b> / hauen / horien       |
| 4. Azken aldian / <b>Azkenik</b> / Azkenekoz      | 12. <b>sortzea</b> / sortu / sortzeko   |
| 5. <b>du</b> / dizkio / zaio                      | 13. zuten / zizkioten / <b>zituzten</b> |
| 6. dio / <b>diote</b> / zaio                      | 14. <b>Anek</b> / Ane / Aneren          |
| 7. zioten / zizkioten / <b>zuten</b>              | 15. du / <b>dizkio</b> / dio            |
| 8. den / du / <b>duen</b>                         |                                         |

- ▶ Kantari dagokion ariketa egingo dute (3. or.). Itzulpena 5. orrialdean daukazue.
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

**ERANTZUN ZUZENAK (AZPIMARRATUTA):**

- |                                  |                                          |                                     |
|----------------------------------|------------------------------------------|-------------------------------------|
| 1. Libre: loturarik gabe         | 6. <b>Arantzak</b> : eztenak, “pintxoak” | 11. <b>Ekiteko</b> : egiten hasteko |
| 2. Ortozik: oinutsik             | 7. Erauzteko: ateratzeko                 | 12. Erantzi: biluztu                |
| 3. <b>Bilakatzen</b> : bihurtzen | 8. <b>Euripean</b> : euriaren azpian     | 13. <b>Ziur</b> : zalantzarik gabe  |
| 4. Harago: kanpo, urruti         | 9. <b>Atertu</b> : euria egiteari utzi   | 14. <b>Duda</b> : zalantza          |
| 5. <b>Asko</b> : anitz           | 10. <b>Zain</b> : itxaroten              |                                     |

- ▶ Kanta berriro entzungo dugu eta, entzun bitartean, irakurri eta kantatzera ere gonbidatuko ditugu; ondoren, erronka botako dugu: ea zeinek ikasten duen buruz aurtengo kanta!
- ▶ Solasaldia egingo dugu<sup>2</sup>: zein KORRIKA-kanta gustatzen zaien gehien, zein musika-estilo duten gustuko, euskal musika entzuten ote duten, zein euskal musikari edo talde duten gogoko...
- ▶ Badok.eus ezagutzen ez badute, gunea aurkezteko aprobetxa dezakegu unea.

**Oharra:** KORRIKA-kantei buruzko galderak “KORRIKAREN ibilbidea 2022” jolasean topatuko dituzue. Halere, nahi izanez gero, hemen dituzue edizio guztietako Korrika-kantak:

<https://www.argia.eus/albistea/korrika-abesti-guztien-bilduma>

<sup>1</sup> Ikusteko, jo hona: <https://www.youtube.com/watch?v=nNAsjgjmHIk&t=3s> (22. KORRIKA-kanta)

<sup>2</sup> Solasaldia egiten laguntzeko, ikusi “2 albistea TITULARRAK.odp” dokumentua, pantaila handian ikusteko pentsatua. Aurkezpen moduan ikusiz gero, titularrak “efektuekin” ikusiko ditugu. Bestela, “2 albistea TITULARRAK.pdf” ere eskura duzue, nahiago izanez gero.

**EUSKARAZ:****HitzEkin**

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...

Oinetakoak lotu (e)ta utzi oinei libre,  
belarretan ortozik bilakatzen bide.  
Mapetatik harago, mundu asko dago.  
Sentitutakoa, sentitu (e)ta hitz ekin.

**(E)ta berriro egin Korrika zurekin,  
arantzak erauzteko elkarren ederrez.  
(E)ta berriro egin mundua zurekin...**

Euripean kantari ibiltzen ikasi;  
ez egon atertu zain (e)ta korrika hasi.  
Berdin da non hasten den, orain beti da hemen.  
Pentsatutakoa, pentsatu (e)ta hitz ekin.

**(E)ta berriro egin Korrika zurekin,  
arantzak erauzteko elkarren ederrez.  
(E)ta berriro egin mundua zurekin  
beti baitago norbait hitz ekiteko prest.**

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin....

Neguko eguzkitan erantzi azala;  
beti ziur dagonak duda sor dezala.  
Bizitza jendea da (e)ta jendea gara.  
Sentitu, pentsatu... Sentitu, pentsatu, hitz ekin.

Hitz ekin, hitz ekin, hitz ekin...  
Zurekin... Hitz ekin, zurekin...

**GAZTELANIAZ:****Palabra y acción**

Palabra y acción, palabra y acción, palabra y  
acción, palabra y acción...

Átate los zapatos, y deja libres los pies,  
que descalzos en la hierba se vuelvan camino.  
Más allá de los mapas, hay mucho mundo,  
a partir de lo sentido, siente, habla y actúa.

**Y correr de nuevo contigo;  
para arrancarnos las espinas  
por virtud de nuestra mutua belleza.  
Y de nuevo crear el mundo contigo...**

Aprender a andar cantando bajo la lluvia  
no esperes a que escampe, empieza a correr.  
Da igual dónde se empiece, ahora siempre es  
aquí.  
A partir de lo pensado, piensa, habla y actúa.

**Y correr de nuevo contigo;  
para arrancarnos las espinas  
por virtud de nuestra mutua belleza.  
Y de nuevo crear el mundo contigo, pues  
siempre hay alguien dispuesto a actuar  
hablando.**

Palabra y acción, palabra y acción, palabra y  
acción, palabra y acción...

Al sol del invierno, quítate la piel;  
que quien siempre está seguro genere una duda.  
La vida es gente, y somos gente.  
Siente, piensa... isiente, piensa, habla y actúa!

Hablar y actuar, hablar y actuar, hablar y actuar;  
contigo...

Hablar y actuar, hablar y actuar, hablar y actuar;  
contigo... Hablar y actuar.

*æk*  
22.korrika

**HITZ EGIN**

**FITXA TEKNIKOA**

Korrikaren edizioa: 22  
(2022)

Izenburua: HitzEkin

Hitzak: Sustrai Colina

Musika: Nerea Urbizu

Abeslariak: Ane Garcia,  
Anari, Nerea Urbizu

**Musikariak:**

-Ander Zulaika: bateria

-Itsaso Etxebeste: baxua

-Eñaut Gaztañaga:

gitarrak

-Nerea Urbizu: pianoa

Grabaketa-estudioa:

Gaztain estudioa (Zestoa)

**Nahasketa eta**

masterizazioa: Eñaut

Gaztañaga

Bideokliparen ekoizlea:

Eymard Uberetagoena

Aktoreak: Ainara Unanua,

Ramon Agirre, Itziar Ituño